

17/08 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ana Marta Iriarte
Juan Carlos Jauregui
Mari Tere Ojanguren
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko irailaren 14ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Ikastetxeen Heldutasun Teknologikoko Eredua (IKT Heldutasuna) onartzen duen eta Ikastetxeen heldutasun-mailei dagozkien ziurtagiri eta zigiluak ezartzen dituen Agindu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Irailaren 11ko 174/2012 Dekretuak onartzen du Ikastetxeen Heldutasun Teknologikoko Eredua (IKT Heldutasuna) eta ezartzen ditu ikastetxeen heldutasun-maila desberdinak akreditatzen dituzten ziurtagiri eta zigiluak.

Azken lehen xedapenak dio hezkuntza arloko eskumenak dituen sailburuak aukera izango duela Dekretu honen Eranskina eguneratzeko.

Europar Batasunak DIGCOMP proiektua (Europar gaitasun digitala garatzeko eta ulertzeko esparru-proiektua) hasi zuen 2010ean, Europako herritar guztien gaitasun digitalerako esparru-proposamen bat osatzeko. EBren estatu kideen ordezkariak Hezkuntza eta Prestakuntzako (E&T 2020, 2013ko maiatza) «IKTak eta Hezkuntza» lantalde tematikoan onartu zuten, eta 2013ko irailean azken txostena argitaratu zen: DIGCOMP: A Framework for Developing and Understanding Digital Competence in Europe.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak 2015eko urriaren 6an emandako Aginduaren bitartez, lehen eguneraketa egin zitzaion irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskinari.

Agindu proiektu honek Dekretu horren eranskin hori eguneratzen du, “aurrera egiteko heldutasun teknologiko/metodologiko/pedagogikoko eredua zehatzago definitzeko eta garaikideago egiteko bidean”.

II. EDUKIA

Agindu proiektu honek artikulua bat, xedapen gehigarri bat eta eranskin bat ditu.

Lehen artikulua 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen du, zeinaren bidez onartzen baita Ikastetxeetako Heldutasun Teknologikoko Eredua.

Azken xedapenak agindu proiektua indarrean sartzea baimentzen du.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak irizpena eman du Ikastetxeetako Heldutasun Teknologikoko Eredua onartu zuen 174/2012 Dekretuari buruz (12/06 Irizpena), bai eta Dekretuaren eranskina eguneratzen duen Aginduari buruz (15/05 Irizpena).

Eranskinean proposatzen diren aldaketei dagokienez, Kontseiluaren iritziz ona da maila desberdinetako ziurtagiriak lortzeko eskakizunak hobetu eta zehaztea, gertatzen ari diren aurrerapenei egokitzeko.

Hala ere, Kontseiluak ekarpen hauek egin nahi ditu:

- Irakaskuntza Prozesuen atalean, “1.2 Baliabideak” izeneko azpi-prozesu berri bat sartu da, eta uste dugu hori berriro formulatu behar dela. Atal horrek hauxe dio: “Ikastetxeak adosten du eta bermatzen die ikasle eta irakasleei izango dituztela erabili behar dituzten gutxieneko baliabideak...”.

Ulertzen dugu hobeto zehaztu behar dela nork adosten eta nork bermatzen duen, Eskola Kontseiluak, zuzendaritza-taldeak...

- Asko baloratzen dugu zenbait irizpidetan familiak kontuan hartu izana. Zehazki, “1.7 Gizarteratzea” atalean, familiei ere aukera ematen zaie Internet eta tresna ofimatikoak erabiltzeko, gutxieneko ordu kopuru bat finkatuz maila bakoitzean. Era berean, “3.1 Ikasgelako komunikazioa” atalean, familiei ere eskaintzen zaie informazioa eskuratzeko aukera.

Balorazio orokor gisa, Kontseiluak errepikatu egiten du 12/06 Irizpenean emandako iritzia: *“ebaluaketekin lotutako ziurtagirien ekimena oso positiboa da, akuilagarri baita hezkuntza zentroentzat informazio eta komunikazio teknologiak didaktikoki eta administratiboki erabil ditzaten eta prestakuntza eta material didaktiko egokiak egin ditzaten. Ziurtagiri prozesu horrek aukera eman beharko luke ikastetxe bateko prozesuen digitalizazio gradua baloratzeko eta jarraibideak markatzeko, hezkuntza komunitate osoa prozesuan inplikatzeko eta ikastetxe bakoitzaren ezaugarri nahiz premia bereziak kontuan hartuz”.*

"Prest Gara" Sailburuordetzaren prestakuntza planaren barruan, hauxe proposatzen da 2014-2017 urtealdiaren amaierako lorpenen adierazle gisa: "ikastetxeen %60k erdi mailako heldutasun teknologikoko ziurtagiria lortu du eta %20 maila aurreratura iritsi da".

Hezkuntza Sailak emandako azken datuen arabera, 628 ikastetxek eskuratu dute ziurtagiria, 174k oinarrizko mailakoak, 342k maila ertainekoak eta 112k maila aurreratukoak. Horrek esan nahi du, bi urtetan %72 handitu dela ziurtagiria duten ikastetxeen kopurua. Oraindik ez da erdietsi proposatutako adierazlea, halere hazkundera nabarmena izan da. Dena den, Kontseiluak uste du Agindu proiektuaren memorian aipatu egin behar litzatekeela zein lorpen maila duen une honetan helburu horrek eta zein ekintza egiten ari diren helburua lortzeko.

Horregatik, berriro diogu esparru hau garatzeko gure ustez funtsezkoa dela Hezkuntza Sailak ikastetxeen premiak aztertzea, irakasleek helburu horiek lortzeko konpromisoa hartzea eta, hala behar balitz, beharrezko diren euskarri digitalak eta bitarteko teknologikoak eguneratzea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko irailaren 18a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA